

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko uztailaren 21eko bilera arruntean (3/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

2. Gaia: Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen euskararen erabilera normalizatzeko VII. Plana (2023-2027 plangintzaldia) onartzeko erabakia.

Lehenengoa.- GUFEn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzen da. Plan hori VII. plangintzaldiari dagokio (2023-2027); honekin batera doa planaren testua. Erabaki honen eranskin bakar gisa erantsi da, eta, xedapen-zatiari erantsita geratuko da, ondorio guztietarako.

Bigarrena.- GUFeko gerenteari ahalmena ematen zaio plana egoki gauzatu eta garatzeko behar diren neurriak har ditzan.

Hirugarrena.- Interesdunei jakinaraziko zaie erabaki hau, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari erabakiaren berri emango zaio. Horrez gainera, xedatzen da iragarki-taulan, erakundearen web orrialdean, Intraneten eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela.

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-07-28
KUDEATZAILEA
GERENTE

